

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

5. astea (2026ko urtarrilaren 26tik otsailaren 1era)


Datuen arabera, aste honetan gripearen eta bronkiolitisaren epidemiak amaitu dira. COVID-19aren tasak baxua izaten jarraitzen du.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 398,7 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (441,1/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasek behera egin dute aurreko astearekin alderatuta. COVID-19aren tasa baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 62 lagin jagoleen % 62,9 baieztatu da, 10 gripe-birus eta 9 ABS detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 16,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (19,2/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA-tasa intentsitate maila baxuan mantentzen da. Bronkiolitisaren (< 2 urte) tasa eta larrialdietako gripe-sindromearena oinarritzko mailara pasa dira, bi epidemiak bukatutzat emanez.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 304 ABS, 126 gripe-birus eta 4 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 398,7 kasukoa izan da (441,1/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 309,4/100.000 izan da Araban, 390,7/100.000 Bizkaian eta 452,9/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3339,9 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 urtekoen eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 1579,5 eta 450,4 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuen (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 169,5 kasukoa izan da (184,1/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ia ESI guztietan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 5. astea	Tasa 4. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	337,8	386,9	0,87 (0,80-0,95)
Arabar Errioxako ESI	518,0	687,8	0,75 (0,54-1,05)
Barakaldo-Sestaoko ESI	375,4	435,1	0,86 (0,76-0,98)
Barrualde-Galdakaoko ESI	421,2	488,4	0,86 (0,80-0,93)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	403,5	448,7	0,90 (0,84-0,97)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	403,0	424,1	0,95 (0,85-1,06)
Uribeko ESI	298,6	353,5	0,84 (0,76-0,94)
Bidasoako ESI	371,2	429,0	0,87 (0,74-1,01)
Debararrenako ESI	431,8	455,4	0,95 (0,81-1,10)
Debagoienako ESI	403,1	511,6	0,79 (0,67-0,93)
Donostialdeako ESI	429,2	405,1	1,06 (0,99-1,14)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	537,7	618,5	0,87 (0,77-0,98)
Tolosaldeako ESI	505,0	591,4	0,85 (0,74-0,99)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 10,6 kasu 100.000 biztanleko balioraino jaitsi da (18,2/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasa (2 urtetik beherakoetan) 100.000 biztanleko 332,0 kasukoa izan da (353,6/100.000 aurreko astean) eta COVID-19arena baxu mantentzen da 100.000 biztanleko 0,5 kasutan (0,6/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 62 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 62,9 baieztatu dira. 10 gripe-birus (6 AH3 eta 4 AH1) eta 9 ABS atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 11 errinobirus eta 6 urtaroko koronabirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAn eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasunak behera egin eta % 16,1ean kokatu da aste honetan (% 19,6 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 14,5ean mantendu da (% 14,3 aurreko astean) eta SARS-CoV-2arena % 0,0koa izan da (% 0,0 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	5. astea		4. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	10	16,1	11	19,6	356	34,9
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	13	1,3
ABS	9	14,5	8	14,3	77	7,5
Metaneumobirus	4	6,5	2	3,6	10	1,0
Parainfluenza	3	4,8	0	0,0	24	2,4
Adenobirus	1	1,6	0	0,0	8	0,8
Errinobirus	11	17,7	8	14,3	187	18,3
Urtaroko CoV	6	9,7	11	19,6	52	5,1
Enterobirus	0	0,0	1	1,8	8	0,8

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratortzen direnak. AIAL tasa 16,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (19,2/100.000 aurreko astean), 17,2/100.000 gizonetan eta 15,7/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 50,7 kasurekin, ondoren urte batetik beherakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 36,3 eta 10,0 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 1,0koa izan da 100.000 biztanleko (1,9/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 2,7koa 100.000 biztanleko (2,9/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,0 kasukoa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 0,6 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 7,1eraino jaitsi da aste honetan (% 12,4 aurreko astean) eta ABSrena % 25,8an kokatu da (% 29,6 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	5. astea		4. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	293	0,0	345	0,6	5499	1,8
Influenza	326	7,1	387	12,4	5598	28,5
ABS	295	25,8	355	29,6	5065	16,3

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akuatuak (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.


Lehen mailako arretako AIAREN zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gaingitu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.

**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**




Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela, aste honetan (2026/05) oinarrizko mailara bueltatuz, epidemiak 15 asteko iraupena izan duelarik.

**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Azkenik, 2 urtetik beherakoen lehen mailako arretako bronkiolitisaren diagnostikoei dagokienez, atalase epidemikoa 2025/48 astean gainditu zen eta aste honetan (2026/05) oinarrizko mailara bueltatu da, epidemiak 9 asteko iraupena izan duelarik.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 304 ABS, 126 gripe-birus eta 4 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 126 gripe-birusetatik, 69 A motakoak izan dira, 21 A(H3), 30 A(H1)pdm09 eta 6 B motakoak. 2025/40 astetik 8368 detekzio erregistratu dira, 8335 (% 99,6) A motakoak eta 33 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 4376 birusetatik, 2644 (% 60,4) A(H3) eta 1732 (% 39,6) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2026ko otsailak 4

Zaintza Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza